

BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal hau gure enpresaren eginkizuna eta gizartean asetzen duen beharra azaltzeko erabiliko dugu. Lehenik eta behin, gizartean identifikatu dugun arazoa eta beharra azalduko dugu. Gero, gure enpresaren bidez, arazo edo behar hori asetzeko zer egingo dugun, eta azkenik, gure enpresaren bezeroak kontuan hartuta, gure ideiaren alderdi azpimarragarriak aipatu eta deskribatuko ditugu.

Hautzaroan zehar, denok ikusi izan ditugu marrazki bizidunak, filmak, panpinekin jolastu dugu... Eta horietan denetan, gorputz eredu ia berdinak nagusitzen dira, gaur egun izena jartzea lortu diegun gorputz normatiboak. Eredu hori hain errepikakorra eta bakarra izatearen ondorioa, gaur egungo gizarteak gorputz normatiboaren irudi hori guztiz barneratzea eta beste gorputz ereduak baztertzea da. Adibide argia da *Barbie* enpresaren panpinen itxura, denek jarraitzen dute eredu berdina eta ez dira batere inklusiboak. Beraz, haur askori, ezinezkoa egiten zaie hauekin identifikatuta sentitzea, panpinen ezaugarriak ez direlako errealitatearen isla, gorputz mota horiek idealizatzearaz gain.

Horregatik, guk, *Lera Style* proiektua sortzea eta aurrera eramatea erabaki dugu, gizarteak duen arazo honi aurre egiteko helburuarekin.



Hori lortzeko, gure enpresak *Barbie* panpinak abiapuntu bezela edukiz, inklusiboak diren eta gorputz ez-normatiboak dituzten panpinak diseinatuko ditugu, hau da, *Barbie* panpinen aurkako kontzeptua. Gure panpinak hainbat ezaugarri kontuan hartuta diseinatuko ditugu, hona hemen gure bildumako diseinu guztiak: Bitiligoa duen panpina, gorpuzkera lodia duen panpina, azal beltzeko panpina, albinoa den panpina, beso protesikoa duen panpina, alopezia duen panpina, asiar jatorria duen panpina, azal txurikoa eta gorpuzkera argala duen panpina eta ilean zapia daraman panpin bat izango dira gure enpresak diseinatuko dituen modeloak. Modelo guzti hauek bi sexuetan eskuragarri egongo dira. Panpin bakoitza bere kaxa partikularrean salduko da, beste lau osagarrirekin, poltsak, betaurrekoak eta biserak, besteak beste.





Azpimarratu nahi dugu, gure enpresaren helburua panpinak saltzea ez ezik, gizartean barneratuta dagoen pentsamenduan aldaketa bat sortzea ere badela.

Panpin hauek kalitatezko materialarekin osatutakoak izango dira, nagusiki plastikoa erabiliko genuke, baina ez edozein plastiko, baizik eta plastiko birziklatua, jasangarria eta organikoa, modu honetan, panpin hauek edozein kausarengatik biltegitatu beharko badira, plastiko hau birziklatu eta berriro erabiltzeko prest egongo

da. Bestelako osagarriak, adibidez arropa, kilometro zero materialarekin eginda egongo dira, kotoi eta beste fibra organikoez urrenez urren. Panpinak gordeta egongo diren kaxak kartoiez

eginak izango dira. Prezioari dagokionez, aldakorra izango da modeloaren arabera, hala ere, gure intentzioa *Barbie* enpresaren prezio antzekoa jartzea da: 23€. Azken finean, gure produktua inklusiboa eta jasangarria izango da, ohiko Barbie baten prezio berean.



Laburbilduz, *Lera Style* ez da panpinak saltzera mugatzen den enpresa bat. Gure balio nagusia gizartean ezarrita dagoen gorputz eredu bakarraren ikuspegia guztiz aldatzea da, txikitatik beste ikuspuntu bat erakutsiz. Horretarako gure panpinak salduko ditugu, haur guztiek munduan dauden gorputz guztiak ezagutu ahal izateko.